


Euskal AEko Administrazio Publikoen defizita BPGaren % 0,4 izan zen 2018an

Defizita 283 milioi eurora iritsi zen, eta 857 milioi eurotan murriztu zen 2017. urtearekin alderatuta

Euskal AEko administrazio publikoek (euskal administrazioek, lurraldean ezarritako Estatuko administrazioak eta lurraldean ezarritako Gizarte Segurantzak) 283 milioi euroko defizita izan zuten 2018an, hau da, aurreko urtean baino % 75,2 txikiagoa, Eustatek Europar Batasuneko Nazio eta Eskualde Kontuen Europako Sistemak (SEC-2010) ezarritako irizpideei jarraikiz landutako datuen arabera. Zenbateko hori BPGaren % 0,4 izan zen, hau da, aurreko urtean baino portzentajezko 1,1 puntu txikiagoa.

Administrazio publikoetatik, euskal administrazioek (hots, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udal-entitateek eta haien guztien mendeko eta administrazio publiko gisa sektorizatutako erakundeek) **finantzaketa-ahalmen** txikiagoa izan dute (BPGaren % 2,1 izan zen 2017an, eta % 1,5era murriztu zen 2018an). Lurraldean ezarritako administrazioan (Estatuan eta Gizarte Segurantzak), bilakaera positiboa izan zen, eta **finantzaketa-premia** BPGaren % 3,6tik % 1,9ra jaitsi zen 2017tik 2018ra bitarte.



Iturriak: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010 eta Eurostat

Administrazio publiko guztien saldoaren bilakaera positiboa inguruko herrialdeetan ere gertatu zen. Izan ere, Europar Batasuna-28ko herrialdeetan, **defizita** (BPGarekiko proportzioan) portzentajezko 0,4 puntutan murriztu zen, eta % 1,1etik % 0,7ra jaitsi zen 2017tik 2018ra bitarte. Espainian, defizitak portzentajezko 0,5 puntuko beherakada izan zuen, eta BPGaren % 3,0tik % 2,5era jaitsi zen 2017tik 2018ra bitarte.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek 28.203 milioi euroko baliabide ez-finantzarioak kudeatu zituzten guztira 2018an. Enplegu ez-finantzarioak, berriz, 28.486 milioi eurora iritsi ziren. Baliabideek % 5,2ko igoera izan zuten 2017. urtearekin alderatuta, eta enplegu ez-finantzarioek igoera txikiagoa izan zuten (% 1,9koa).

Euskal AEko Herri Administrazioen baliabide-enplegu ez-finantzetakoak (milaka euro). 2018

	2018	2018/2017 (%)
Finantzazkoak ez diren baliabideak	28.202.734	5,2
Merkatuko ekoizpena eta azken erabilera propioarentzako ekoizpena	1.110.336	3,4
Merkatukoa ez den produkzioaren ziozko ordainketak	612.843	-6,0
Ekoizpen eta inportazio zergak (kobratzekoak)	8.702.589	6,0
Jabetzaren errentak	193.610	-7,8
Errenta, ondare eta abarren gaineko zergak	7.593.862	8,8
Gizarte-kotizazioak	8.885.700	3,6
Bestelako transferentzia arruntak	879.061	-10,2
Kapitalzergak (kobratzekoak)	209.681	18,4
Inbertsiorako laguntzak (kobratzekoak)	65.336	-47,9
Bestelako kapital-transferentziak (kobratzekoak) (1)	-50.284	-70,1
Finantzazkoak ez diren erabilerak	28.485.706	1,9
Soldatakoen ordainketa	7.126.506	2,1
Bitarteko kontsumoa	4.029.039	2,6
Dirulaguntzak (ordaintzekoak)	35.742	-94,2
Produkzioaren gaineko beste zerga batzuk	35.742	-4,5
Jabetzaren errentak	268.318	0,4
Errentaren gaineko zerga arruntak (ordaintzekoak)	331	106,4
Espezieko gizarte-transferentziak ez diren gizarte-prestazioak	11.640.276	3,6
Gauzazko gizarte-transferentziak Merkatuan erositako ekoizpena	2.159.303	3,0
Bestelako transferentzia arruntak	779.238	5,6
Kapital Eraketa Gordina	1.358.033	-0,5
Kapitaltransferentziak (ordaintzekoak)	540.451	-20,5
Ezfinantzetako aktibo ez ekoiztien erosketa garbiak	-27.805	-298,1
Aurrezki garbia	669.175	811,1
Finantzatzeko ahalmena(+) beharrezana(-)	-282.973	-75,2

(1) Barne ditu nekez lortuko den diru-bilketagatiko kapital-transferentziak

Iturriak: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Baliabide ez-finantzarioen barruan, partidarik garrantzitsuena *gizarte-kotizazioena* izan zen (baliabideen % 31,5), eta, atzetik, *produkzioaren eta inportazioen gaineko zergena* (% 30,9) eta *errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zergena* (% 26,9). Nolanahi ere, azken horiek izan zuten igoerarik handiena aurreko urtearekin alderatuta (% 8,8koa, hau da, 2017an baino 613 milioi euro gehiago). *Produkzioaren eta inportazioen gaineko*

zergak 489 milioi euroko igoera izan zuten, hau da, % 6,0koa. *Gizarte-kotizazioek* ere igoera handia izan zuten (% 3,6koa, hau da, 310 milioi euro gehiago). Guztira, baliabide ez-finantzarioek 1.384 milioi euroko igoera izan zuten 2017. urtearekin alderatuta (hau da, % 5,2ko igoera).

Enplegu ez-finantzarioak 28.486 milioi eurora iritsi ziren (2017an baino 527 milioi euro gehiago). Gasturik handieneko partida *gauzazko gizarte-transferentziez bestelako gizarte-prestazioena* izan zen (pentsioak barne); zehazki, prestazio horiek gastuaren % 40,9 izan ziren, eta 401 milioi euroko (% 3,6ko) igoera izan zuten aurreko urtearekin alderatuta. Soldatuen ordainsaria gastuaren % 25,0 izan zen, eta % 2,1eko igoera izan zuen. Hurrengo partidarik garrantzitsuena bitarteko kontsumoarena izan zen (gastuaren % 14,1), eta % 2,6ko igoera izan zuen 2017. urtearekin alderatuta. Aitzitik, kapital-eraketa gordina eta kapital-transferentziak (ordaindu beharrekoak), batuta, gastuaren % 6,7 izan ziren, eta 146 milioi euroko beherakada izan zuten. Behera egin zuen garrantzi txikiagoko beste partida bat dirulaguntzena izan zen. Dirulaguntza horiek gastuaren % 2,0 izan ziren, eta 43 milioi euroko beherakada izan zuten 2017. urtearekin alderatuta.

Ikuspegi **instituzionaletik, lurraldean ezarritako Estatuko administrazioak** 658 milioi euroko saldo positiboa edo finantzaketa-ahalmena lortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, beraz, aurreko urteko saldoa hobetu zuen. Izan ere, aurreko urtean 635 milioi euroko finantzaketa-premia izan zuen, 2017an foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren alde erabaki zen aurreko ekitaldietako kupoaren likidazioaren zenbateko osoa (2018an baliokiderik izan ez zuena) kontabilitate nazionalen egoztearen ondorioz. Bestalde, **lurraldean ezarritako Gizarte Segurantzak** 2.113 milioi euroko finantzaketa-premia izan zuen 2018an, hau da, 2017an baino 78 milioi euro gehiagokoa.

Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-) (milaka euro). 2017

	Finantzazko ak ez diren baliabideak	Finantzazko ak ez diren erabilerak	Aurrezki garbia	Finantzatzeko ahalmena(+) / beharrizana(-)
Herri Administrazioak	28.202.734	28.485.706	669.175	-282.973
Estatuaren administrazioa + Gizarte Segurantza Lurralderatua	11.431.138	12.886.541	-1.258.053	-1.455.404
Estatuaren administrazioa Lurralderatua	2.740.807	2.082.915	856.705	657.892
Gizarte Segurantza Lurralderatua	8.690.330	10.803.626	-2.114.758	-2.113.296
Euskal administrazioak	19.537.340	18.364.909	1.927.228	1.172.431
Eusko Jaurlaritza	11.492.037	10.960.603	1.009.951	531.434
Araba/Álava	2.945.757	2.888.700	53.637	57.057
Bizkaia	9.389.361	9.029.205	609.655	360.156
Gipuzkoa	5.966.007	5.742.222	253.985	223.785

Sartutako erakundeak, ikusi ohar metodologikoa 2014

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Euskal administrazioei dagokienez, haien finantzaketa-ahalmena 1.530 milioi eurotik 1.172 milioi eurora jaitsi zen 2017tik 2018ra bitarte.

Eusko Jaurlaritzako entitate guztien finantzaketa-ahalmenak 564 milioi euroko beherakada izan zuen, eta 1.095 milioi eurotik 531 milioi eurora jaitsi zen 2017tik 2018ra bitarte, 2017an euskal administrazioen alde erabaki zen aurreko ekitaldietako kupoaren likidazioaren zenbateko osoa (2018an baliokiderik izan ez zuena) kontabilitate nazionalen egoztearen ondorioz, arestian adierazi dugunez.

Hiru lurraldeetako foru- eta udal-administrazio guztiak kontuan hartuta, saldo positiboa izan zuten. Arabako foru- eta udal-administrazio osoaren saldo positiboa 42 milioi eurotan murriztu zen (99 milioi eurotik 57 milioi eurora jaitsi zen 2017tik 2018ra bitarte). Bizkaian, berriz, saldo positiboa 189 milioi eurotik 360 milioi eurora igo zen 2017tik 2018ra bitarte. Azkenik, Gipuzkoako administrazio guztiak kontuan hartuta, finantzaketa-ahalmena 146 milioi eurotik 224 milioi eurora igo zen 2017tik 2018ra bitarte.

Herri administrazioen azken eskaria. Euskal AE (milaka euro). 2014-2018

	2014	%	2015	%	2016	%	2017	%	2018	%
Herri administrazioen azken kontsumoko gastua	11.216.772	88,1	11.518.530	90,1	11.744.297	89,9	12.026.710	89,8	12.321.209	90,1
Herri administrazioen kapital finkoaren eraketa gordina	1.519.573	11,9	1.272.477	9,9	1.321.586	10,1	1.364.658	10,2	1.358.033	9,9
Barne eskari publikoa	12.736.345	100,0	12.791.007	100,0	13.065.883	100,0	13.391.368	100,0	13.679.242	100,0

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak. SEC2010

Administrazio publikoen **azken gastuaren egiturari**, azken kontsumoko gastua (hau da, administrazioek ondasun eta zerbitzuen produkzioan egindako gastua gehi merkatuekoizleek produzitu dituzten eta etxeetara zuzendu diren ondasun eta zerbitzuen eskuraketa –gauzazko gizarte-transferentziak–) barne-eskari publikoaren % 90,1 izan zen 2018an, eta kapital-eraketa gordina, berriz, % 9,9. Inbertsionalki, inbertsioen % 91,2 euskal administrazioenak izan ziren, eta % 2,6ko igoera izan zuten 2017. urtearekin alderatuta; hortaz, inbertsioen zenbatekoa 1.207 milioi eurotik 1.239 milioi eurora igo zen 2017tik 2018ra bitarte. Gainerako % 8,8a lurraldean ezarritako Estatuko administrazio osoari (Estatuari eta Gizarte Segurantzari) dagokio, eta, nolana ere, % 24,4ko beherakada izan zuen (157 milioi eurotik 119 milioi eurora jaitsi zen 2017tik 2018ra bitarte).

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62